**atarrabiakoihua/75**

BOLETIN INFORMATIVO DE ATARRABIA TALDEA **–[VILLAVA-ATARRABIA]**– NOVIEMBRE 2011 AZAROA

## Los herederos de Nafarroa Bai

### Geroa Bai y UPN-PP se disputarán el quinto diputado

Hace casi ocho años, los partidos EA, Aralar, Batzarre y PNV formaron *Nafarroa Bai*. Esta coalición, liderada ya entonces por Uxúe Barcos, consiguió despertar las ilusiones de un buen número de navarros no sólo por su programa político –vasquista y progresista- sino por su nueva forma de hacer política. Su reflejo en Villava fue la coalición *Atarrabia-Nabai,* que en las elecciones municipales de 2007 consiguió ser la fuerza más votada, pasando a gobernar la localidad hasta 2011.

**El "desguace" de Nabai**

A partir de 2010 los protagonismos y discrepancias estratégicas entre los partidos que la conformaron terminaron por arruinar aquella exitosa fórmula. Por razones diferentes, Batzarre y EA abandonaron la coalición, los primeros para aliarse con IU-EB en *Izquierda-Ezkerra* y los segundos con Batasuna en *Bildu.* A raíz de su descalabro electoral en la CAV la pasada primavera, pronto Aralar siguió los pasos de EA, llevándose con él el uso legal de la marca. De aquel ilusionante proyecto de 2004 sólo quedó el grupo de independientes *Zabaltzen* y EAJ-PNV.

En septiembre de este año, con la participación de Atarrabia Taldea, quedó conformada GEROA BAI. La candidatura, nuevamente liderrada por Uxúe Barkos, reedita aquél ilusionante proyecto de 2004 y, según todos los sondeos, está a las puertas de conseguir un diputado por Navarra en disputa con UPN-PP.

# Atarrabia Taldea apoya a Uxue Barkos (GEROA BAI)




A principios de septiembre, cuando la unión de Aralar con Bildu era ya un hecho, Atarrabia Taldea fue invitada a constituir una nueva coalición que recogiese el espíritu del programa y el testigo de la labor de Nabai'2004. Su participación era legalmente imprescindible. Una coalición debe estar conformada por al menos dos partidos y en ese momento los impulsores sólo contaban con uno. Los independientes de Zabaltzen no eran un partido y, debido al adelanto electoral, no había tiempo para que se constituyeran como tal.

Como se recordará, el partido villavés se había formado para poder reeditar la marca local de la coalición -Atarrabia-Nabai-, algo que finalmente no fue posible al decidir Aralar que concurriría por separado con el Nabai-2011.

**Con tan sólo un voto en contra**

Para adoptar una decisión, Atarrabia Taldea celebró una asamblea general el 14 de septiembre en la que discutió la propuesta. Con tan sólo un voto en contra, todos sus miembros decidieron posibilitar la creación en Navarra de una oferta electoral que concurriera a las elecciones generales del 20-N y ofreciera a los navarros una opción vasquista, progresista e integradora, respetuosa con todas las identidades de nuestra tierra y con unos planteamientos políticos centrados en Navarra.

No obstante, al mismo tiempo Atarrabia Taldea se reafirmaba en que su ámbito de actuación como partido seguiría circunscrito a Villava-Atarrabia a través de la coalición "Atarrabia Bai", con fidelidad al programa electoral al que tan importante apoyo habían otorgado los villaveses y villavesas en las pasadas elecciones municipales.

atarrabiakoihua/75

ATARRABIA TALDEKO ALDIZKARIA –[**VILLAVA-ATARRABIA**]– 2011 AZAROA

## Nafarroa Bairen oi-nordekoak

**Geroa Bai eta UPN-PP artean jokatuko da bosgarren diputatua**

Duela ia zortzi urte, EA, Aralar, Batzarre eta EAJ alderdiek Nafarroa Bai koalizioa osatu zuten. Koalizio honek, Uxue Barkosen lidergopean, hainbat nafarren ilusioa iratzartzea lortu zuen, bere egitasmo politikoagatik ez ezik – euskal zalea eta aurrerakoia- politika egiteko era berriagatik ere. Atarrabia herrian islatuta geratu zen *Atarrabia-Nabai* koalizioan, eta 2007ko udal hauteskundeetan indar bozkatuena izatea lortu zuen eta herria gobernatu zuen 2011 urtera arte.

2010 urtetik aurrera, koalizioa osatu zuten alderdien protagonismo eta ezbai estrategikoek formula arrakastatsuaren hondoratzea ekarri zuten. Arrazoi ezberdinengatik, Batzarre eta EAk koalizioa utzi zuten; lehenengoak IU-EBrekin elkartu ziren *Izquierda-Ezkerra* taldean eta bigarrenak Batasunarekin *Bildu* koalizioan. Iragan udaberriko hauteskundeetan EAEn hondoa jo ondoren, Aralarrek EAren urratsak jarraitu zituen eta berarekin eraman zuen markaren legezko erabilpena. 2004 urteko egitasmo hartatik, Zabaltzen eta EAJ-PNV baino ez ziren geratu.

2011 urte honetako irailean, Atarrabia Taldearen parte hartzearekin, *Geroa Bai* koalizioa osatu zen. Hautagaitzak, berriz ere Uxue Barkosen buruzagitzapean, 2004 urteko egitasmo hura errepikatzen du, eta egindako galdeketa guztien arabera, Nafarroarentzako diputatua lortzeko atarian dago, UPN-PP alderdiaren kontrako lehian jokatzen dena.

# Atarrabia Taldeak Uxue Barkosi (GEROA BAI) ematen dio bere babesa



Irailaren hasieran, Aralar eta Bilduren batuketa errealitatea zenean, Atarrabia Taldeari Nabai 2004ren lanaren eta egitasmoaren lekukoa gorpuztuko zuen koalizio berria osatzeko gonbitea egin zitzaion. Bere parte hartzea benetan ezinbestekoa izan zen. Koalizio bat osatzeko, alderdi bi behar dira, eta une horretan bultzatzaileek alderdi bakarra zuten. Zabaltzen-eko independenteek ez zuten alderdia osatzen eta hauteskundeak aurreratu zirenez, ez zuten alderdia osatzeko behar besteko denborarik.

Gogoan izango duzuenez, Atarrabiako alderdia Atarrabia-Nabai Koalizioaren marka berregiteko helburuarekin osatu zen, baina hori ezinezko gertatu zen Aralarrek 2011ko Nabairekin ez joatea erabaki zuelako.

**Atarrabia Taldeak Atarrabian errotzen du bere jarduna**

Erabaki bat hartzeko orduan, Atarrabia Taldeak bere batzar nagusia ospatu zuen irailaren 14an, eta bertan eztabaidatu eta adostu zuen proposamena. Ia aho batez adostu zen Azaroaren 20ko hauteskunde orokorretarako hauteskunde eskaintza ahalbidetzea, nafar hiritarrei eskaintza euskaltzalea, gure herriko nortasun guztiekiko errespetua gordeko duena, eta Nafarroan errotutako planteamendu politikoak mantenduko zituena.

Aldi berean, Atarrabia Taldeak berretsi egin zuen bere jarduera politikoa Atarrabiako esparrurako izango zela "Atarrabia Bai" koalizioaren bidez, Atarrabiako emakume eta gizonek babestu zuten hauteskunde egitasmoari jarraiki.

# Por qué en Geroa Bai

**Nadie se extrañará** que Atarrabia Taldea haya decidido impulsar GEROA BAI. Al fin y al cabo se trata de aplicar en Navarra la misma fórmula que defendemos para nuestro pueblo. Aquí representamos un "vasquismo navarrista" tolerante e integrador; un progresismo social respetuoso con las raices de nuestra comunidad y una acción política centrada en Villava pero sin olvidarse de los problemas de nuestro pueblo. Y eso mismo defiende GEROA BAI para Navarra y para Euskal Herría.

**Nacimos como un partido de Villava y para Villava**. Pero es indudable que tenemos un referente político fuera de nuestras mugas. Nuestra participación en GEROA BAI era legalmente imprescindible, si, pero hemos de reconocer que quienes integramos Atarrabia Taldea nos identificamos con la coalición que lidera Uxue Barcos. Y no es sólo que como villaveses le debemos mucho (gracias a sus gestiones en Madrid tenemos hoy la nueva Casa de Cultura-Kultur Etxea) sino que, además, nos convence su programa, su honestidad y su forma de hacer política.

**Aunque duela al algunos**, es indudable que hay un gran número de navarros con profundas convicciones vasquistas, abertzales y progresistas que no se ven representados por la estrategia soberanista puesta en marcha por los herederos de Batasuna y que ha conseguido aglutinar a antiguos miembros de Nabai, léase EA y Aralar. Muchos navarros, sí, que no creen en el frentismo y que no están dispuestos a que se tiren por la borda los grandes logros que para el vasquismo en Navarra ha supuesto Nabai.

**La agónica desaparición de ETA**, es cierto, abre un nuevo horizonte a nuestro futuro como pueblo. Pero también en política debemos aprender del pasado. Lastrado por la violencia terrorista, en los últimos treinta años el vasquismo apenas ha podido avanzar en Navarra. Los famosos "tercios sociológicos" en los que nos dividimos los navarros –derecha españolista, izquierda estatalista y nacionalismo vasco- siguen más o menos como estaban. En cuanto al nuestro, se advierte que las políticas frentistas lo unen, pero no le permiten avanzar. A veces unir no suma. Y no es extraño, así, que muchos no queramos seguir una estrategia caduca marcada además por el mundo de la izquierda abertzarle radical, que acaba de admitir en la práctica lo que algunos ya sabiamos hacía tiempo: que han ido durante más de treinta años con el rumbo equivocado. Y por eso no los queremos como "guías".

**GEROA BAI es nuestro proyecto.** Y lo es porque representa un vasquismo integrador que aspira a convencer con la palabra, con argumentos, con el trabajo diario en todos los ámbitos donde se decidan asuntos que nos afecten. Porque representa un progresismo social que no olvida nuestras raices. Porque defiende que los navarros somos los que decidimos sobre Navarra y que la participación en esa Euskal Herría que anhelamos se hará cuándo y cómo quiera la mayoría de los navarros y navarras. Nuestro futuro no se decidirá en Madrid –como quieren PP-UPN y PSOE-, pero tampoco en el Goierri.

**Queremos que la Navarra vasquista y progresista** tenga voz también en Madrid. Y queremos que lo haga de boca de Uxue Barkos y de GEROA BAI. Le dimos nuestra confianza en 2004 y lleva ocho años sin defraudarnos. Todo un récord en la política española, en la política vasca y en la política navarra.

**GEROA**BAI

ACTO CIERRE DE CAMPAÑA ELECTORAL
Casa de Cultura de Villava
Viernes 18 de noviembre a las 20,00 horas
**UXUE BARKOS**

# Zergatik Geroa Bai koalizi-

**Inor ez du harrituko** Atarrabia Taldeak GEROA BAI koalizioa bultzatzeko erabakia hartu izanak. Azken finean, Nafarroara eraman nahi dugu gure herrirako defendatzen dugun formula bera. Gure herrian, "Euskal Herri zaletasun nafartarra" ordezkatzen dugu, tolerantea eta integratzailea; aurrerapen soziala, gure erkidegoaren sustraiekiko begirunearekin eta Atarrabian errotutako jardun politikoarekin, baina gure herriaren arazoak ahaztu gabe. Eta hori bera da GEROA BAI koalizioak Nafarroarako eta Euskal Herri osorako defendatzen duena.

**Atarrabiako eta Atarrabiarako alderdi gisa sortu ginen.** Baina, zalantzarik gabe, badugu erreferente politikoa gure mugetatik kanpo. Gu GEROA BAI koalizioan parte hartzea ezinbestekoa zen legez; baina, aitortu beharra dugu Atarrabia Taldea osatzen dugun gehienok Uxue Barkosek zuzentzen duen koalizioarekin identifikatzen garela. Eta kontua ez da bakarrik Atarrabiako herritar gisa, asko eta asko zor diogulako (Madrilen egin dituen gestioei esker dugu gaur egun gure herriko Kultur Etxea), baizik eta bere egitasmoak, bere zintzotasunak eta politika egiteko duen erak konbentzitu egiten gaituelako.

**Batzuentzat mingarri gerta daitekeen arren,** zalantzarik gabe, nafar asko eta asko dira euskaltzaleak, abertzaleak eta aurrerakoiak, eta ez dute beren burua Batasunaren ondorengoek martxan jarri duten eta NABAIren antzinako kideak, hau da, EA eta Aralar batu dituen estrategian ikusten. Nafar asko, bai, frentismoan sinesten ez dutenak eta Nabaik Nafarroako euskaltzaletasuna eta abertzaletasunerako ekarri dituen lorpen handiak alferrik galtzen utzi nahi ez dutenak.

**ETAren amaiera agonikoa**, egia da, herri gisa dugun herrirako zerumuga berria zabaltzen du. Politikan ere, iraganetik ikasi behar dugu. Bortxakeria terroristak azken hogeita hamar urteotan ezarri digun zamaren eraginez, Euskal Herri zaletasunak ez du Nafarroan aurrera egiterik izan. Nafar hiritarrak banatzen garen "heren soziologiko" famatu horiek, hau da, eskuindar espainiarra, ezker estatalista eta euskal abertzaletasuna, lehengo tokian daude. Gureari dagokionez, muturreko politikek (frentistek) batu edo zatikatu egiten dute, baina ez diote aurrera egiten uzten. Ondorioz, ez da bat ere harritzekoa, gutako askok ezker abertzale erradikalak markatutako estrategia zaharkituari jarraitu nahi ez izatea. Gainera, duela gutxi onartu behar izan dute batzuek lehendik ere genekien zerbait: hogeita hamar urte egin dute norabide okerrean. Eta horregatik, guk ez dugu horien gidaritzarik nahi.

**GEROA BAI da gure egitasmoa.** Hitzarekin, argudioekin, guri eragiten diguten gaiak erabakitzen diren esparruetan egunetik egunera egindako lanarekin konbentzitzea bilatzen duen euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna ordezkatzen duelako. Gure sustraiak ahazten ez dituen aurrerabide soziala ordezkatzen duelako. Nafarrentzat defendatzen duelako Nafarroaz erabakitzeko eskubidea eta amesten dugun Euskal Herrian parte hartzea guk nafarrok erabakitzen dugunean izatea aldarrikatzen duelako. Gure etorkizuna ez dute Madrilen erabakiko, UPN-PP eta PSOEK nahi dutenez; baina, ezta Goierrin ere.

**Nafarroa euskaltzalea eta abertzalea eta aurrerakoiak** Madrilen ahotsa izatea nahi dugu. Eta ahots hori Uxue Barkos eta GEROA BAIrena izatea nahi dugu. Uxueri eman genion gure konfiantza 2004 urtean, eta zortzi urte hauetan ez digu huts egin. Espainiar, euskal eta nafar politikako marka bikaina da.

**GEROA**BAI

HAUTESKUNDE KANPAINA AMAITZEKO EKITALDIA
Atarrabiako Kultur Etxea
Ostirala, azaroaren 18a, 20:00etan